

FUTBOL ZELAIK ERABILTZEKO ARAUAK

89. artikulua.—Deskribapena

Futbolaren edozein modalitate praktikatzera bideratutako instalazioak dira.

Futbol zelaiak soilik futbolean aritzeko izan daitezke edo erabilera mistoa izan dezakete, atletismo-pista, jaurtiketa-eremua, saltogunea etab. dituzten kirol anitzeko multzo batean sartuta daudenean.

90. artikulua.—Sarrera

Futbol zelaian sartzeko dagokion harpidedun-txartela aurkeztuko da, harpidedun denak, eta sarrera-kontrollean kasu bakoitzean dagokion alokairu-tasa ordaindu, aldez aurretik.

Behar bada, instalazioak zabaltzeko ordutegian futbol zelaia alokatuta edo erreserbatuta ez badago, instalaziora sarrera librea izango da.

91. artikulua.—Araudi berezia

Erabiltzaile, klub eta abarrentzako Araudi Orokorraz gain, futbol zelaiak erabiltzeko honakoa izango da kontuan:

- a) Zelai osoa edo zati bat erabili ahal izango da, futbol-7ko 2 partida egin ahal izateko.
- b) Instalazio honen xedea funtsean eta lehentasunez kirol elkarte eta klubek futbola edo futbol-7a praktikatzea izango da.
- c) Futbol zelaira kirol arropa eta oinetako egokiak jantzita sartuko da soilik.
- d) Futbol zelaian sartzeko eta bertatik irteteko ordua benetan erreserbatuak izan direnak izango dira, eta ezin izango da beroketak egiteko etab okupatu.
- e) Udalerriko ikastetxeek futbol zelaia eskola-ordutegian erabiliko dute, ikastetxeko zuzendaritzarekin adostuta. Adostasun hori Orozkoko Udalarekin sinatutako hitzarmen batean finkatuko da.
- f) Ikastetxe horiek futbol zelaia eskola ordutegitik kanpo ere erabili ahal izango dute, ikastetxeko Guraso Elkartearen zuzendaritzak aurretik adostu ondoren. Adostasun hori Orozkoko udalarekin sinaturiko hitzarmen batean finkatuko da.
- g) Udalerriko futbol klubek ere futbol zelaia erabili ahal izango dute klubletako zuzendaritzen eta Orozkoko Udalaren artean izenpetutako banakako akordioen bitartez.
- h) Txapelketa ofizialak daudenean, taldeak ordu erdi lehenago sartu ahal izango dira futbol zelaian beroketak egiteko, eta futbol zelaitik aterako dira txapelketa amaitutakoan.
- i) Taldeetako ordezkariak zelaia markatzeaz arduratuko dira hori behar dutenean.
- j) Talde bakoitzak futbol zelai bakoitzean uzten duen materialak klubaren jabetzako saski, sare edo poltsetan jasota egon beharko du, eta instalazioak ez du horren ardura hartuko.
- k) Erabili beharreko aldagelak atezaindegian zehaztuko dira, edo dagozkien seinaleztapenen bidez.

l) Aldagelak entrenamendu-ordua baino 15 minutu lehenago irekiko dira entrenamenduetarako, eta entrenamendua bukatu ondorengo 30 minutuetan irten beharko da bertatik. Partida ofizialak direnean, aldagelak partida hasi baino 60 minutu lehenago irekiko dira, eta topaketa egin ondorengo 30 minutuetan hustu beharko dira.

m) Taldeetako ordezkariak edo entrenatzaileak aldageletako giltzak hartzerakoan berariazko egoera-orrian sinatu beharko dute, eta giltzak itzultzerakoan berdin egin beharko dute. Giltzak beren esku dauden bitartean, ordezkatzeko dituzten klubak eragin litzatekeen kalteen arduradunak izango dira.

n) Entrenamendu eta txapelketa ofizialak dirauten bitartean, futbol zelaian soilik baimena duten kirolariak, entrenatzaileak eta talde ordezkariak egon ahal izango dira; gainerako laguntzaile eta jarraitzaileak harmailetan egongo dira.

o) Erabiltzaileak zein zigorretan eror litezkeen alde batera utzita, jokalekuetako materialak eta ekipamenduak desegoki erabiltzea arduradunak zigortzeko arrazoi izango da, gutxienez eragindako kalteak ordainaraziz.